

Ahotsak

"Eskola Kirola familia osoak hartzen duen konpromisoa da"



Gipuzkoako Eskola Kirola Programa barrutik ezagutzeko, ekimena egunerokoan bizi dutenengana jo dugu: programan parte hartzen ari diren haur eta

gurasoengana. Leintz Eskola Kiroleko familiek programaren onurez, irakaspenez, prozesuaz eta konpromisoez hitz egin digute. Ikusi jarraian elkarrizketa!



Ba al zenekien?



Eskola Kirola egiten duten ikasleen %74k ondo pasatzeko egiten duela kirola? Aldiz, %28k leihatzea gustatzen zaiolako.

Albisteak



Eskola Kiroleko surf hastapen kanpaina

Urtero 2.250 haur inguruk parte hartzen dute Gipuzkoako Eskola Kiroleko hastapen programa arrakastatsuan. Surfean, bodyboard-ean edota surf-arranean aritzen ikasten dute, eta udaberriko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago 2025ko urtarrilaren 22tik 29ra.



Eskola Kirol Egokituko programa: Oarsoaldeko esperientzia

Eskola Adineko Jarduera Fisikoa eta Kirolaren antolaketa berezia da Oarsoaldean. Azken urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko programak egitura indartsu bat lortu du eskualdeetan, udalek eta ikastetxeek egindako lanari esker, eta Oarsoaldearen kasuan, eragileen arteko lankidetzaren bidez, Eskola Kirol Egokituko EKE programa martxan jarri zen 2023-2024 ikasturtean.



Gure programaren ebaluazioa, Gazteen Garapen Positiboaren ikuspegitik

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzuak lankidetzaren hitzarmena du UPV/EHUko GIKAFIT ikerketa-taldearekin, eta honen bidez, Gipuzkoako Eskola Kirolaren Programa aztertu da, Holt et al. (2017) autoreen "Positive Youth Development" (PYD) ikuspegia erabiliz.

Familian egiteko



Orientazio ibilaldiak jarduera ederra dira familian egiteko! Ekintzaren helburua da ibilbide bat osatzea; horretarako, mapa bat jarraitu behar da eta irudian azaltzen diren puntuetatik igaro. Gipuzkoako Orientazio Taldeak urteko liga antolatzen du, eta 2025ean sei proba izango dira otsailetik azarora. [Hemen](#) ikusi dezakezue egutegia.



Horrez gain, maila ezberdinetako orientazio ibilbide egonkorrek ere badaude lurraldean: Donostian, Oiartzunen, Zarautzen, Zegaman... Familia eta haurrei zuzendutakoak kolore horikoak dira, eta mapak [lotura honetan](#) daude eskuragai.



Nire semeak/alabak zergatik ezin du futbola bakarrik egin hori bada gustatzen zaiona?

Haurren gustuak ez dira ezerezetik sortzen, eraikiak dira, ikusten dutena barneratzen baitute eta beren ingurutik jasotako informazioak baldintzatzen ditu.

Gipuzkoan, Eskola Kirola hezkuntza. Eta Hezkuntzaren ikuspuntutik, komeni da ikasleek kirol jardueren aukera zabal bat probatzea; izan ere, hezkuntzako gainerako arloetan bezala, honek askeago egingo ditu.